

6

Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak

Iñaki Martínez de Luna

UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitatea

i.martinezdeluna@ehu.es

Sarrera-data: 2012-11-30 | Onartze-data: 2012-12-15

Laburpena. *Inkesta Soziolinguistikoa* zein *Euskal Herriko Kale Neurketak* kezka batzuei erantzutea bilatzen dute: *Zertan da euskararen erabilera: gorantz ala beherantz, aurrerantz ala atzerantz? Azken batean, euskararen normalkuntzan ongi ala gaizki ari gara?* Hizkuntza baten errealitatea hain konplexua izanik, ikerlan horien datuek ere ez digute erantzun orokor gabirik eta erabatekorik ematen, baizik eta aurrerapausoak, geldiuneak eta atzerapausoak erakusten dituzte. Gauzak horrela eta euskararen bilakaera den bezala izanda: *zergatik gertatzen da? Ba ote dago logika bat aurrerapauso, geldiune eta atzerapauso horien atzean?* Galdera horiei erantzun egokiak bilatzeko asmoz, ikerketa horien bitartez lortu diren ondorioen muina hainbat puntutan laburbiltzen eta multzo ezberdinetan antolatzen saiatuko gara artikulu honetan. • **Hitz-gakoak:** *Inkesta Soziolinguistikoa, hizkuntzaren erabilera, dimentsio makrosoziala eta mikrosoziala.*

Abstract. *The Sociolinguistic survey and the Street survey of the Basque Country* seek to address certain points of concern: *Which way is Basque language heading: up or down, forwards or backwards? All told, are we going about Basque language normalization the right way or not?* Given the complexity of a language's real situation, not even the wealth of data yielded by such research projects can answer these questions in a clear, comprehensive or categorical way, but they do point to where the advances are, where we are at an impasse and where we are losing ground. So, *why is this so? Do these advances, impasses and setbacks respond to any logic?* The aim of this article is to synthesize and group the basic findings of the studies referred to in such a way as to contribute to the search for sound answers to these questions. • **Key words:** *Sociolinguistic Survey, language use, macrosocial and microsocal dimension.*

ESZENATOKI BERRIA IKERKUNTZA SOZIOLINGUISTIKORAKO

I Aurreko orrietan Olatz Altunak, EHKNko Batzorde Zientifikoak, Jon Aizpuruak, Agurtzane Ortiz de Landaluzek eta Iñaki Iurrebasok eta burutu dituzten lanak ditugu abiapuntu lerro hauetan jorratuko diren analisi eta gogoetentzat. Nire eskerrona egile horientzat, lan horien egokitasunak eta zorroztasunak nire eginkizuna asko erraztu baitute.

Kosta ala kosta, badoaz oinarri gero eta sendoak osatzen euskal soziolinguistikaren ikerkuntzan, eta eskuartean ditugun *V. Inkesta Soziolinguistikoa* eta *Euskal Herriko VI. Kale Neurketa* ikerlanak dira horren adibide garbia. Hori gutxi balitz, horren datu-iturri ezberdinen arteko erkaketa posible izan da oraingoan, jatorri ezberdineko bi erakunde eta lantaldeen arteko koordinazioari esker.

Horrela eginda, etekin berezia erdietsi da behaketaren eta inkestaren emaitzak alderagarri bihurtzetik. Oraingoan, euskararen egoeraz zein bilakaeraz egin daitezkeen irakurketak -batzuetan kontrajarriak izan direnak- ikuspegi osatuagoa eraiki dute. Zenbaki honetako artikuluan bertan Iñaki Iurrebasok dioenez: *“bietatik ekarritako datuak uztartuz eta elkarrekin aztertuz, hobeto, sakonago, fidagarritasun handiagoarekin ezagut dezakegu euskararen egoera eta bilakaera zein izan den, iturri bakarretik edanez baino.”* Aurrerapauso handia eta txalotzeko moduko ahalegina da bi ikerlan horien emaitzak uztartu eta hainbat lekutan elkarrekin aurkeztu izana; aro berri baten beste zantzu bat.

Aurreko guztia gutxi balitz, bi ikerketa horien uztarketak aukera berri bat dakar, Iñaki Iurrebaso eta bion ustean: bidea zabaltzen du euskararen adierazle sistema osatzen hasteko. Izan ere, ikerlanen arteko koordinazioa ezinbestekoa da informazio sistema bat eraikitzen hasteko eta, horren bitartez, Euskal Herri osoko hizkuntza-egoeraren zein bilakaeraren berri zehatza eta jarraia izan ahal izateko. Egia da, hurbiltze eta bateratze metodologiko-tekniko horretan zeregin handiak daudela oraindik; adibidez, kontzeptuen definizio mailan edota aldagaien diseinu bateratuan. Baina, askotan zailena den lehenengo pausoa emana dago honezkerok.

Azkenik esan, lankidetzaz horren ondorioz, gainera, baliabideen eta ahaleginen erabilera eraginkorragoa eta efizienteagoa eratorriko dela. Izan ere, hizkuntza gutxitua izanik, euskarak dituen baliabide mugatuak ondo baino hobeto kudeatu beharko dira bere biziraupena ziurtatuko bada.

Handia da, hortaz, euskal soziolinguistikaren ikerkuntzan murgilduta gabiltzanok zoriontsu sentitzeko dugun motiboa.

Kosta ala kosta, badoaz oinarri gero eta sendoak osatzen euskal soziolinguistikaren ikerkuntzan.

Oraingoan, euskararen egoeraz zein bilakaeraz egin daitezkeen irakurketak -batzuetan kontrajarriak izan direnak- ikuspegi osatuagoa eraiki dute.

Izan ere, hizkuntza gutxitua izanik, euskarak dituen baliabide mugatuak ondo baino hobeto kudeatu beharko dira bere biziraupena ziurtatuko bada.

Axioma bat hartzen dugu lerro hauen abiapuntutzat: bizirik diraun hizkuntza, erabileran gauzatzen dena da. Hizkuntza baten errealitatea hain konplexua izanik, ikerlan horien datuek ere ez digute erantzun orokor gabirik eta erabatekorik ematen, baizik eta aurrerapausoak, geldituak eta atzerapausoak erakusten dituzte.

ERABILERAREN BILAKAERAZ

I
V. Inkesta Soziolinguistikoa ikerlanak euskararen analisi soziolinguistikoan ohikoak diren hiru alorrak -gaitasuna, jarrerak eta erabilera- lantzen baditu ere, hemen *Euskal Herriko Kale Neurketa* ikerketarekin ikerlan horrek partekatzen duen eduki bakarrari erreparatuko diogu: erabilerari, hain zuzen. Izan ere, axioma bat hartzen dugu lerro hauen abiapuntutzat: *bizirik diraun hizkuntza, erabileran gauzatzen dena da.*

Baieztape horrek eztabaida handirik sortuko ez duelakoan, euskararen erabilera zehatz-mehatz aztertzea eta interpretatzea izango da gure xedea hurrengo lerroetan. Euskararen erabileraren eta erabilera ezaren zergatiak ulertzeko asmoz, zenbaki honetan bertan beste artikuluetan egindako ekarpenetatik aurrera beste urrats bat gehiago egiteko.

Inkesta Soziolinguistikoa zein *Euskal Herriko Kale Neurketak* kezka batzuei erantzutea bilatzen dute: *Zertan da euskararen erabilera: gorantz ala beherantz, aurrerantz ala atzerantz? Azken batean, euskararen normalkuntzan ongi ala gaizki ari gara?* Hizkuntza baten errealitatea hain konplexua izanik, ikerlan horien datuek ere ez digute erantzun orokor gabirik eta erabatekorik ematen, baizik eta aurrerapausoak, geldituak eta atzerapausoak erakusten dituzte. Gauzak horrela eta euskararen bilakaera den bezala izanda: *zergatik gertatzen da? Ba ote dago logika bat aurrerapauso, gelditu eta atzerapauso horien atzean?*

Galdera horiei erantzun egokiak bilatzeko asmoz, hasiko gara ikerlan horietatik¹ lortu diren ondorioen muina hainbat puntutan laburbiltzen eta multzo ezberdinetan antolatzen:

I) Erabilera-eremuaren arabera:

1. Euskararen erabilera eremu formaletan (lankideekin eta udal-txetan/ banketxean/ osasun zerbitzuetan) hazi da batez ere, eta erabilera maila eremu informaletakoa baino altuago izatera iritsi da eta, horrela, aurreko urteetako joera irauli da.
2. Eremu informaleko hiru arlotan (seme-alabekin, lagunekin eta kalean) ere erabilera igo da, hala ere, igoera eremu formaletan baino neurri apalagoan gertatu da.
3. Eremu informalarik dagokion den etxeetako erabilerak behera egin du zertxobait -seme-alabekin gorantz egin duen arren- eta joera hori areagotu da azken bost urteotan.

II) Lurraldeko banaketa politiko-administratiboei dagokienez:

1. Euskal Herriko lurraldeen artean alde nabarmenak daude euska-

raren bilakaeran: EAEn, erabilerak gora egin du esparru formaletan zein informaletan; Nafarroan ere zertxobait gehixeago erabiltzen da euskara, etxeko salbuespenarekin, non atzera egin duen; Iparraldean, atzerapausoa egon da eremu guztietan.

2. Gipuzkoak eragin du batez ere EAEko erabileraren hazkundera, Arabako zein Bizkaiko erabileraren bilakaera txikia izan baita edo eremu batzuetan -kale erabileran, hain zuzen- zifra bertsuetan il-tzatuta dago.

III) Adinari erreparatuz:

1. Euskal Herriko datuetara itzuliz, aldaketa-joera bereziki positiboa da belaunaldi gazteenetan, baina ñabardurak ematen dira lurraldearen arabera. EAEn zein Nafarroan haurrak erabileraren erpinean agertzen dira, beste adin taldeen gainera. Iparraldean, aldiz, ez da halakorik gertatzen eta zenbat eta zaharrago biztanleria gero eta handiago erabilera maila.

2. Lankideen artean eta beste zenbait eremu formaletan (banketxe, udal-letxe eta osasun-zerbitzuetan) erabilerak adin-tarte guztietan gorantz egin badu ere, multzo gazteenetan neurri are handiagoan izan da.

3. Eremu informalarri dagozkion hiru alorretako (lagunekin, kaleko eta etxeetako) erabilerak atzera egin du 50-64 adin taldetik gorakoengan eta hortik behera, aldiz, areagotu da.

4. Kaleko erabilerak bilakaera bera eta garbia du adin-taldeen arabera Araban, Gipuzkoan, Nafarroan eta Iparraldean: adinekoen erabilera da apalena, helduengan zerbait areagotu da, gazteena horren gainera igotzen da eta erpinean haurrena dago. Bizkaian, aldiz, lehenengo hiru adin-tarte horien artean ez dago ia mugimendurik eta haurrena da igoera adierazten duen multzo bakarra.

IV) Hizkuntza-gaitasunaren arabera:

1. Euskararen erabilerak lurralde batzuetan izan duen hazkundera, azpitik eta lekutan gelditu da gaitasunaren hedapenak leku horietan lortu dituen zifretatik; horrela, gaitasunaren eta erabileraren arteko arrakala gero eta handiago da.

2. Euskal Herriko elebidunen artean euskara erabiltzen dutenen proportzioa, oro har, ez da askorik aldatu azken 20 urteotan, baina lurraldez lurralde aztertuta alde aipagarriak agertzen dira: EAEko elebidunen erabilera proportzio bertsuan mantendu dira, Nafarroan 65 urtetik beherakoengan jaitsi da eta Iparraldean 35 urtetik beherakoengan igo da.

Zergatik erabileraren portaera ezberdin horiek? Zerk eragiten ditu bilakaeraren abiadura eta, batzuetan, norabide ezberdinak?

Hiru dimentsio hartzen dira hizkuntzaren erabileraren oinarri gisa: norbanakoarena, mikrosozialekoa eta makrosozialekoa.

V) Denbora tartearen arabera:

1. EAEn 50-64 urtetik eta Nafarroan zein Iparraldean 34-50 urtetik gorako adin taldeetan erabilerak behera egin du 1991-2011 bitartean; Iparraldean, bereziki handia izan da atzerakada hori. Adin horietatik behera —lehenago edo beranduago, lurraldearen arabera—, erabilerera areagotu da.
2. Euskal Herriko erabilerak, oro har eta proportzionalki, askoz gehiago areagotu da eremu gehienetan 1991etik 2011era bitartean, 2006-2011 bitartean baino.
3. Kale erabilerak 20 urteko denbora tartean gora egin badu ere, babiliteke azken bost urteetan zertxobait atzerantz egin izana edo, ononean, bere horretan mantendu izana. Etxeetako erabilerak, aldiz, bi epeetan jaitsi da: 1991-2011koan zein 2006-2011koan.

VI) Gune soziolinguistikoaren arabera:

1. Azken 20 urteotan euskararen erabilerak gora egin du, apurka-apurka, EAEko lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan; erdaldunetatik hasita goi-ertainera, hain zuzen. Euskaldunena den laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du, *Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera.
2. *Kale Neurketaren* arabera, aldiz, biztanle gehienek (% 75 eta % 100 artean) euskaraz dakiten laugarren gune soziolinguistikoan, hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik 2011ra.²

Erabileraren nondik norako batzuk laburbildu eta gero, beste galdera batzuk berez sortzen dira: *Zergatik erabileraren portaera ezberdin horiek? Zerk eragiten ditu bilakaeraren abiadura eta, batzuetan, norabide ezberdinak?* Gorago laburbildutako hamasei puntu horiek erabiliko dira ondoren galdera horiei erantzuna emateko.


SIGI-SAGAKO BILAKAERAREN ZERGATIAK

Euskararen erabilerak izan duen bilakaera ezberdina eta gorabeheratsua ulertzeko lagungarri suerta daiteke aurretik garatua eta erabilia dugun eredu teorikoa (Martínez de Luna, 2001: 47-66; Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163-195). Joshua Fishman-en zenbait kontzeptu makulu hartuta (Fishman, 1979), lan horretan hiru dimentsio hartzen dira hizkuntzaren erabileraren oinarri gisa: norbanakoarena, mikrosozialekoa eta makrosozialekoa.

Fishmanek dimentsio makrosozialaren eta mikrosozialaren arteko harremanaz eta bi horiek norbanakoarengan duten eraginaz hitz egiten du (Fishman, 1979: 73-75). Bestalde, Xabier Erizek ongi erakutsi du (Erize, 1997: 24, 36) dimentsio mikroan kokatzen den hurbileko komunitatearen eta norbanakoaren sostengua nahikoa izan daitekeela hizkuntzak iraun dezan, dimentsio makrosozialeko baldintzak aldekoak izatetik lekutan daudenean ere.

Beraz, hiru dimentsioen arteko harremana ez da makrotik behe-erantzko joera mekaniko eta determinista bezala ulertu behar, baizik eta ikuspegi konstruktibista batetik. Alegia, hiru dimentsio horiek elkarri eragiten diote eta, *continuum* bat osatuz zein hizkuntzaren askotariko izaera aintzat hartuz, hizkuntzaren ikuspegi holistikoa eskaintzen dute.

Hiru dimentsioen arteko harremana ez da makrotik behe-erantzko joera mekaniko eta determinista bezala ulertu behar, baizik eta ikuspegi konstruktibista batetik.



Ukipen egoeran dauden hizkuntzen hiztunek horien arteko bat hautatu beharko dute, hainbat egoeratan. Adibidez, euskararen alde egingo badute, hiru maila horietako batzuetan baldintza gehienak bete beharko dira, neurri handian. Horrela gertatu ezean, hiztun elebidunek erdararantz joko dute, askotan oharkabean.

Hiru dimentsioen arteko harremana ez da makrotik beheranzko joera mekaniko eta determinista bezala ulertu behar, baizik eta ikuspegi konstruktibista batetik.

Asko eta asko dira erdaraz gaituago daudenak euskaraz baino eta, horregatik, azken hizkuntza horretan erosoago sentitzen dira. Horren atzean dago hizkuntza-transmisio mugatua.

NORBANAKO DIMENTSIOA: GAITASUN ETA MOTIBAZIO ERLATIBO NAHIKOAK

Hiru dimentsioen arteko harremana ez da makrotik beheranzko joera mekaniko eta determinista bezala ulertu behar, baizik eta ikuspegi konstruktibista batetik. Baliteke Norbanako Dimentsioan agertzen diren bi aldagaietako batek, gutxienez, eragin zuzena izatea hizkuntza hori erabilia izan dadin ala ez. Ikus ditzagun, jarraian, kasu horietako batzuk.

Elebidunen bilakaerari dagokionez, gogora ditzagun Aizpurua eta Ortiz de Landaluzeren hitzak: *“Hamasei urte edo gehiagoko biztanleen artean, 1991n baino 185.600 elebidun gehiago daude 2011n (%27 gaur egun). Elebidunen hazkundera Nafarroan eta, batez ere, EAEn gertatu da. Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude, baina gazte elebidunen kopurua hasi da dagoeneko gora egiten.”* Aurrera pauso hori garrantzitsua izanik ere, jakina da muga nabarmenak daudela hainbat euskal hiztunengan, euskararen gaitasun erlatiboari dagokionez. Asko eta asko dira erdaraz gaituago daudenak euskaraz baino eta, horregatik, azken hizkuntza horretan erosoago sentitzen dira. Horren atzean dago hizkuntza-transmisio mugatua, eta hori gertatzen da, batez ere, lehen hizkuntza erdara dutenengan; alegia Euskal Herriko gazte jendearen gehiengoan. Ez da harriztekoa, beraz, euskaldunak ugaritu diren arren, horietako askok erdarara erraz jotzea: euskaraz duten gaitasuna ez baita erdaraz dutenaren parekoa eta, hortaz, ez dute hizkuntza-gaitasun erlatibo nahikorik.

Euskaldun euskaltzale askoren kasuan, bestalde, euskararen aldeko motibazioa sakona eta ongi errotua den arren, ez da nahikoa izaten hizkuntza hori erabileraren eremura eramateko. Arrazoia, batzuetan, arestian esandako gaitasun mugatua izan daiteke. Beste batzuetan, nagusiki erdalduna den gizarte batean, euskaraz egiteko dauden zailtasun edota muga objektibo mikro edo makrosozialak izango dira erabilera oztapatuko dutenak. Elebidun askorengan, halaber, gaitasun mugatua eta, aldi berean, gizarte baldintza -mikro zein makro- desegokiak izango dira euskaraz ez egiteko duten arrazoen pilaketa (mekanismo horien azalpenak hurrengo puntuetan aurkituko dira).

Hortaz, gaitasun erlatiboaren mugak zein motibazio nahikorik ezak, banaka ala elkarrekin, ongi azal lezaketek euskararen erabileraren hazkundera txikiagoa den gaitasunaren hedapenarena baino, eta zergatik bi osagai horien arteko arrakala gero eta handiago den (arestian aipatu diren ondorio laburtuetako IV.10 puntua).

Halaber, etxeetako euskararen erabilerak zertxobait jaistea eta, aldi berean, seme-alabekin gorantz egitea (ondorietako I.3 puntua), gaita-

sunaren eta motibazioaren arteko oreka faltaren ondorioa izan liteke. Izan ere, bikote mistoak —gurasoetako bat euskalduna eta bestea erdalduna— areagotu dira azken hamarkadetan eta, hortaz, familiak partekatzen duen hizkuntza bakarra erdara da. Baina, aldi berean, familia mistoen kasuetan ere transmisiorako ardura altua da eta, hortaz, euskalduna den amak edo aitak seme-alabei euskaraz egingo die kasu gehienetan. Aldiz, umeekin hitz egiteko gaitasun nahikoa izan dezakete guraso batek edo biek, baina ez hizkuntza-erregistro edota egoera guztietan hizkuntza hori baliatzeko bezainbeste; halakoetan ere, etxeetako erabileraren joera kontrajarria (etxeetan beherantz eta seme-alabekin gorantz) ez litzateke motibazio faltagatik gertatuko.

Hizkuntzaren aldeko motibazio erlatiboaren garrantzia ere ezin da ahaztu, beraz, eta berretsia da beste adibide batzuetan: dimentsio mikrosozialeko zein makrosozialeko interbentzio zuzenik gabe, seme-alabeekin ez ezik eremu informaleko beste zenbait kasutan ere euskararen erabilera (lagunekin eta, 1991-2011 denbora tartean, kalean) igo da (ondorioen I.2 puntua).

DIMENTSIO MAKROSOZIALA: GIZARTEKO BABESA, LEGE-ESTATUSA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

I

Gizarteko maila makroaz hitz egiten dugunean, *gizarteko jardunguneak*³ ditugu hizpide; dimentsio orokor eta objektiboez ari gara, non egunerokotasuneko dimentsio mikrosozialak txertatzen diren. Adibidez, eguneroko lantokiko egoera lan-jardunguneari dagokio; ikasgelako egoera, hezkuntza sistemaren jardunguneari; film baten emanaldia, kultura eta aisialdiko jardunguneari; irratsaio bat, komunikabideenari; e.a. Beste horrenbeste gertatzen da eguneroko edozein egoerarekin ere: horietako bakoitza jardungune orokorrago eta zabalago baten gauzatze eta osagaietako bat baino ez da.

Jardunguneetako hizkuntza-definizioa eta hizkuntza-baldintzak bi motakoak dira. Batzuk dira hizkuntzaren inguruan legeak finkatuta dituen estatusa eta horren araberako garapen normatiboa: hizkuntza koofiziala izan ala ez, adibidez, eta hortik eratorriko den hainbat zehaztasun hitzunen eskubideen inguruan: hezkuntzan, komunikabideetan, herri-administrazioan, erabilera publikoan, eta abarretan.

Bigarren eragin mota, eremu eta erakundetze formaletatik kanpokoa da: gizarteak dituen hizkuntzen gaineko *“errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatu dituzten egitura kognitiboak”*, hain zuzen; alegia hizkuntzak ulertu eta interpretatzeko modua eta horiei atxikitako jarrerak;

Jardunguneetako hizkuntza-definizioa eta hizkuntza-baldintzak bi motakoak dira. Batzuk dira hizkuntzaren inguruan legeak finkatuta dituen estatusa eta horren araberako garapen normatiboa.

Bigarren eragin mota, eremu eta erakundetze formaletatik kanpokoa da: gizarteak dituen hizkuntzen gaineko “errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatu dituzten egitura kognitiboak”.

bestela esanda, hizkuntza-inguruko diskurtsoak edo *framing*-ak (Martínez de Luna, 2010). Gizartearen hizkuntza-diskurtsoa nolakoa, gizartearen hizkuntza-balorazioak eta -arauak halakoak. Aipaturiko hiru dimentsioek elkarri eragiten diotela gogoraraziz, hauxe esan behar dugu: bai hizkuntzaren inguruko lege-estatusak, baita gizarte diskurtsoak ere, bi-biek eragingo dute norbanakoaren motibazio nahikoa eman dadin ala ez.

Lerro hauen oinarritzko erreferenteak diren ikerlanek irakasten dituzten arabera, euskararen bilakaerari buruz dauden lurraldeen arteko aldeak bat datoz lekuan lekuko hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza motekin; baita ere euskalgintzak eta, oro har, gizartearen atxikimenduak euskara elikatzeko egin duten ahaleginaren tamainarekin ere. Izan ere, Euskal Herriko hiru lurraldetatik, EAE da interbentziorik sendoena izan duena azken 30 urteotan, eta bertan erabilera beste inon baino gehiago hazi da; Nafarroan, dagoen hizkuntza-eremuen banaketak oztopo handiak jartzen ditu zonalde misto eta *erdaldunetan*, eta, horren ondorioz, euskararen erabilera zertxobait baino ez da areagotu; Iparraldean euskarak aitorten ofizialik ez du eta atzerapausoa egon da (ondorioen III.6 eta IV.11 puntuak), nahiz eta azken urteotako herritarren eta instituzioen ahaleginak gainbehera geldiarazi duten.

Lerro batzuk gorago aipatu den lanean (Martínez de Luna, 2010) esaten genuen azken bi hamarkadetan lurruntzen joan direla, abertzaletasunaz kanpoko sektoreetan batez ere, urte batzuk lehentxeago pileren zeuden euskarekiko lilura eta miresmena. Hori ez ezik, hizkuntza horren aldeko jarrera eta atxikimendua zalantzan jartzen hasi direla aipatzen zen; izan ere, euskararen aldeko hizkuntza-politikari kutsu politizatu, ideologikoa, eta erabilera partidista leporatu zaizkio. Alegia, errealitatearen hautemate eta irudikatzea gidatzen eta bideratzen dituen egitura kognitibo berria garatu da, zeinak euskara modu abstraktuan onartzen badu ere, bere aldeko neurri zehatz asko gaitzesten duen.

Aizpurua eta Ortiz de Landaluzeren ustetan, euskararen aldeko jarrerak eta hura indarberritzearen aldeko borondatea areagotu egin dira EAEn eta Nafarroan, ez ordea Iparraldean. EAEn eta Nafarroan adintalde guztietan egin du gora. Iparraldeari dagokionez, azken bost urteotan gazteen artean euskararen aldeko jarrerak gora egin du. Hala ere, euskararekiko motibazio horrek baditu argi-ilunak. Egia da euskara baztertzea aldarrikatzen duen diskurtso sozialik ez dagoela; baina, jakina da, halaber, horrela pentsatzen duten herritarrak egongo direla eta iritzi hori isilean gordeko dutela. Izan ere, inkesten bitartez gehienbat jasotzen den aldekotasuna azalekoa da, konpromisorik gabea, teknika horren bitartez hobekien jasotzen diren ideiak gizartearen babesaren dute-

nak direlako. Hortik aurrera, alegia euskararen aldeko neurriak hartu behar direnean eta halakoek norbera edo senideren bat kaltetzeko arriskua dakartenean, euskararekiko aldekotasuna lurruntzen da. Hortaz, azaleko aldekotasun hori bukatzen da erabilera areagotzeko neurriak zehazten hasi bezain pronto (Amorrortu *et al.*, 2009). Zenbait girotan dagoen euskararen erabileraren inguruko uzkurutasun horrek ez dio mesederik egingo elebidunari eta horrek, askotan, amore emango du parean duen erdalduna kopetilun ez ikustearren. Bestela esanda, dimentsio makroan kokatzen den hizkuntza-diskurtsoak dimentsio mikroko egoeretan eragingo du eta, norbanakoaren motibazioa ahulduz, euskararen erabilera eragotziko du.

Gauzak horrela, baliteke azken bost urteetan erabileraren hazkundean gertatu den moteltzearen arrazoa hori izatea, batez ere aintzat hartuz 1991tik 2011ra bitartean hazkundearen tamaina (ondorioen V.13 puntua). Areago, interbentziorik gabeko gizarte eremu informaletan geldiuine edota atzerapausoa gertatu da azken bosturtekoan (ondorioen V.14 puntua), eta, era berean, horren arrazoa izan liteke gizartearen sektore batzuetan gertatu den dimentsio makrosozialeko diskurtso aldaketa.

Badago, aipatu ditugun azalpenetan koka litekeen beste kasu nabarmen bat: kale erabilerak, Bizkaian, gainontzeko lurraldeen joera orokortua hautsiz, ez du gora egiten adinekoen adin-taldetik helduen multzora, ezta helduengandik gazteen adin-taldera ere (ondorioetako III.9 puntua). Bizkaiko joera ezberdin hori izan liteke gorabehera metodologiko baten ondorioa, informazio guztiak lagin baten bitartez eskuratuak izanik, emaitzak estatistikoki tarte baten baitan irakurri behar direlako, eta ez balio zehatz bezala. Baina, baliteke ere informazio horrek joera berezi baten ageriko sintoma izatea eta, horrela balitz, lurralde horretako ezau-garri propioak erakustea. Zein litzateke, baina, Bizkaian eman litekeen ustezko hizkuntza-egoera ezberdin hori? Hipotesi gisa, balizko azalpen hau bururatu zaigu: gaur egun eta haurrengan ez, baina aurreko urteetan eta beste adin-taldeetan erabilerak oztopo mardul batekin topo izana: alegia, lurralde horretako euskararen aldaerek, euskara batuarekin duten distantzia handia. Hizkuntzaren *corpus*-eko alde hori dela medio, baliteke bere hitzunen artean bertako aldaerak prestigio galdu izana eta hitzunek, nahastuta, arazorik ematen ez zaien hizkuntzara jo izana: erdarara, hain zuzen.

Beraz, arlo juridiko-politikoko araudi formala izan edo gizartearen arkitektura korapilatsu eta informaleko fruitua izan, dimentsio makrosozialean hedatzen dira hizkuntzarekiko hautemateak eta interpretazioak irizpide normatibo bihurtzen dira herritarrentzat: zer egin behar

Dimentsio makrosozialean hedatzen dira hizkuntzarekiko hautemateak eta interpretazioak irizpide normatibo bihurtzen dira herritarrentzat.

Bistan da gizarteko kideek hizkuntzarekiko izan dezaketen motibazioa (dimentsio indibiduala) eta erabilera (dimentsio mikroko jarduna), dimentsio makrosozialeko irudi edo prestigio sozial horri lotua egongo direla.

Egunerokotasuna eraikitzen duten egoerek hainbat baldintza ezartzen dizkiete hiltunei.

Ukipen egoera bateko harremanetan erabiliko den hizkuntzaren hautua ez da berez gertatzen, baizik eta zirkunstantzia baldintzatzaile batzuen mendean.

den eta zer ez, zer dagoen ongi ikusia ala gaitzetsia, eta abar. Batzuetan, gizarte diskurtso informala irizpide horiek bat etorriko dira hizkuntzaren lege-estatusa eta bere araudi formalarekin; bestetan, ordea, planteamendu horiek kontrajarriak izango dira. Kasu batean edo bestean, beti eragingo diote elkarri, norabide beretik joateko zein, norabide ezberdinetarantz abiatuz, elkarren aurka egiteko. Bistan da gizarteko kideek hizkuntzarekiko izan dezaketen motibazioa (dimentsio indibiduala) eta erabilera (dimentsio mikroko jarduna), dimentsio makrosozialeko irudi edo prestigio sozial horri lotua egongo direla.

DIMENTSIO MIKROSOZIALA: GIZARTE EGOERAK ETA GIZARTE-SAREAK

I
Dimentsio mikrosoziala eguneroko gizarte bizitzarena da, alegia edozein gizarte zeregina bideratzeko besteekin ehuntzen den harremanena: etxe-koekin, lankideekin, lagunekin, beste herritarrekin... Dimentsio honetan gauzatzen da hizkuntza-jarduna, betiere norbanako dimentsioarekin eta dimentsio makrosozialarekin elkarrengainean.

Hots, arestian aipatu diren norbanakoen hizkuntza-gaitasuna zein motibazioa egoera sozialetan biltzen diren solaskideenak dira eta, aldi berean, dimentsio makrosozialean ezarritako baldintzen eragina izango dute, gutxi-asko, beren hizkuntza jardunean. Nolako baldintzak izan hizkuntza batek *jardungunetan* —maila makrosozial—, halako aukerak herritarrek —norberaren gaitasuna eta motibazioa tartean— hizkuntza hori erabiltzeko.

Esana dugu jada, hizkuntza bi edo gehiago ukipen egoeran daudenean hizkuntza horiek dakizkiten hiltunek horien arteko hautua egin behar izaten dutela beren harremanetan. Hautu horretan, (dimentsio mikroko) eguneroko gizarte egoeren izaerak eta beren baitako harremanek pisu handia dute. Egunerokotasuna eraikitzen duten egoerek hainbat baldintza ezartzen dizkiete hiltunei, adibidez: aurrez aurre dituzten solaskideak hizkuntza jakin batetan gaituak diren ala ez jakitea; hizkuntza bereko hiltunak izanda, elkarrekin harremanak trinkoak izatea eta ez egotea beste hizkuntza baten harreman-sareetan barreiatuta; egoerak ezartzen duen *marka linguistikoa* tarteko, hiltunak hobesten duen hizkuntzaren aldeko hautua egiteko ahalmena izatea; taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea ere (Amonarriz, 1991).

Hortaz, ukipen egoera bateko harremanetan erabiliko den hizkuntzaren hautua ez da berez gertatzen, baizik eta zirkunstantzia baldintzatzaile batzuen mendean. Gorago esan bezala, baldintzak horiek, nor-

beraren nahiarekin bat etorri ala aurkakoak izan, eragiten dute herritarrek funtzio sozialak betetzeko osatzen dituzten harreman-sareetan: etxean edo familian, lanean, lagunartean, aisialdiko kideekin, kirol jardunetan, eta abarretan. Dimentsio mikrosozialeko baldintzak ez dira egokienak euskararen kasuan; gogora dezagun, adibidez, Aizpurua eta Ortiz de Landaluzeren arabera, elebidunen erdia gune erdaldunetan bizi dela eta, beraz, gaztelaniaz edo frantsesez nagusiki diharduen harreman-sare zabaletan bizi dela eta euskara erabiltzeko aukera gutxi duela.

Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza egokiek, interbentzioaren bultzadaz, emaitzak eman beharko lituzke haien gerizpera bildu diren jardunguneetako egoera jakinetan. Hizpide ditugun 2011ko bi ikerlanen kasuan, interbentzioaren eraginak azal lezake erabileraren zenbait bilakaera. Adibidez, zergatik euskararen erabilera areagotu den gehienbat hizkuntza-plangintzaren bat ezarri den eremu formaletan, eta zergatik eremu horietako erabilerak aurrea hartu dion interbentziotik at gelditu diren eremu informaletakoari (ondorioen I. 1 puntua).

Era berean eta adinari erreparatu, hizkuntza-politikan eta interbentzio programetan inork arreta eta interbentzio neurriak jaso baditu, hori gazte jendea da, eta ahalegin horiek emaitzetan islatzen dira. Izan ere, lankideekin eta beste zenbait eremu formaletan (banketxe, udaletxe eta osasun-zerbitzuetan) zein informaletan, erabilerak bereziki gazteengan egin du gorantz (ondorioen III.8, III.9 eta V.12 puntuak). Oro har, iñaki Iurrek dioen bezala, euskara *zahar batzuen hizkuntza izatetik batez ere gazte-jende multzo polit baten hizkuntza izatera pasatzen ari da*, batez ere EAEn.

Esan daiteke, beraz, hizpide ditugun ikerlanen ondorioetatik bildutako kasu horietan antzeman daitekeela -dimentsio makro-politika eta plangintza egokiak beharrezkoak direla dimentsio mikroan euskal hiztunek elkarren arteko harremanak euskaraz berma dezaten. Bestela esanda, hizkuntza komunitate propio bat edo, gutxienez, jardun komunitate bat osa dezaten.

DIMENTSIOEN ERAGIN METATUA

Arestian esan bezala, norbanako dimentsioak, dimentsio makrosozialak eta dimentsio mikrosozialak *continuum* bat osatzen dute eta hiruek eragiten diote elkarri. Elkarreragite horren bitartez, dimentsio bakoitzeko interbentzio-neurri zein baldintzek erabileran duten efektua biderkatuko da, beste bi dimentsioetara zabaltzen duen zeharkako eraginaren bitartez.

Horregatik, lege-estatusaren baldintzak zein *V. Inkesta Soziolinguistikoak* euskarazko gaitasunaren eta jarreraren inguruan eskaintzen dituen datuak

**Esan daiteke
hizpide ditugun
ikerlanen
ondorioetatik
bildutako kasu
horietan
antzeman
daitekeela -dime
ntsio makro-
politika eta
plangintza
egokiak
beharrezkoak
direla dimentsio
mikroan euskal
hiztunek elkarren
arteko
harremanak
euskaraz berma
dezaten.**

EAEn, Nafarroakoak eta Iparraldekoak baino aldekoagoak direnez, espero zitekeen lurralde horretako eragina handiagoa izatea dimentsio mikrosozialean gauzatzen den erabileran. Hipotesia berretsi da: Euskal Herri osoan, EAEko erabilera da gehien areagotu dena (ondorioetako II.4 puntua).

EAEn baitan, halaber, hazkunderik handiena Gipuzkoan gertatu da (ondorioetako II.5 puntua). Azpimarragarria da azken kasu hori batez ere, ezin modu argiagoan ematen duen testigantzagatik. Izan ere, dimentsio makrosozialeko oinarritzko lege-estatusa EAEko hiru lurraldeetan bera izanda ere, Gipuzkoako beste baldintza makrosozialak (hizkuntza-diskurtsoa, batez ere), baldintza indibidualak (gaitasun erlatiboan zein motibazio nahikoa) eta baldintza mikrosozialak (euskaldunen arteko elkarrekiko ezagutza eta harreman trinkoagoak, besteak beste) beste inon baino egokiagoak dira euskararen erabilerarako eta, horren ondorioz, lorpenak ere Bizkaikoak eta Arabakoak baino handiagoak.

AZKEN GOGOETAK ETA INTERBENTZIORAKO IRUZKINAK

I

Erabileraren bilakaeraz

Has gaitzen azken gogoeta hauek Aizpuruak eta Ortiz de Landaluzen ondorioetako esaldi batekin: “Ezagutzak ez ezik erabilerak ere gora egin du eremu guztietan, etxean izan ezik. Baina etxean ere, seme-alabekin eta neba-arrebekin erabilerak gora egin du.”

Jarraitzeko gehitu diezaiogun, EHKNren Batzorde Zientifikoaren eskutik, Euskal Herrian aurreko hitz horietan aintzat hartu izan ez den kale erabilerari buruzko balantzea: “Euskal Herriko Kale-Neurketa egiten hasi zenetik, hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin duela gora euskararen erabilerak Euskal Herriko batz bestekoan.” Emaidza apalak dira baina, egile horien ustez, izpi baikorrez tintatuta: “Euskaldunen zenbatekoa kontuan hartuta, erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira. Txillardegik garatutako erabilera isotropikoaren teorian oinarrituta, esan dezakegu probabilitate estatistikoen arabera are gutxiago erabiliko genukeela euskara.”

Azkenik, gogora dezagun Iñaki Iurrebasok atera duen ondorioa: “euskararen alde administrazioek, herri mugimenduek eta orokorrean euskaltzale guztiek egindako lanak balio izan duela. (...) Horrela, beraz, lan egitea merezi duela berretsiko lukete datuek, eta bide horretan guztien ahaleginak direla beharrezko.” Mamitsu eta zentzudun deritzet iritzi horiei eta ondo baino hobeto laburtzen dute aurreko lerroetan jorrratu ditugun informazioak eta interpretazioak.

Erabileraren sigi-sagako bilakaerak zapore gazi-gozoa utzi badu ere, interbentzioaren eskutik jaso den ekarpenak argi utzi du: a) euskararen egoera hobetzeko eta hizkuntza hori biziberritzeko aukera egon badagoela; b) horretarako, hizkuntza-politika eta neurri eraginkorragoak abian jartzea eta eremu berrietara hedatzea dela bidea. Aurrerapausoak egon badaude, nahiz eta denborak ekarri dituen zenbait aldaketa aldekoak ez diren; adibidez, globalizazioa edota bilakaera demografikoa: belaunaldi erdaldun zaharrek duten pisu demografiko handiagatik, etorkin berrien ugaritzeagatik eta gune euskaldunen etarantz izandako barne migrazioengatik, batez ere.

Gertaera demolinguistiko horiei arreta berezia eskaini behar zaie-lakoan gaude, baina hemen gune euskaldunen etarantz izandako barne migrazioari baino ez diogu erreparatuko. Izan ere, euskararen erabilerak gune soziolinguistiko erdaldunetan eta ertainean gorantz egin badu ere, euskararen hauspoa den gune soziolinguistiko euskaldunetan zalantzak daude: Inkesta Soziolinguistikoaren arabera erabilerak atzerantz egin badu ere, Kale Neurketaren emaitzek igoeraren berri ematen dute. Beraz, metodologia eta gune soziolinguistikoen definizio ezberdinak tartean, kontraesaneko informazioak dira horiek. Inkesta Soziolinguistikan, gainera, horren zergatiaz hausnartzen da: “Behera-kada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagoetatik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza ezaugarriak daude.” (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012: 16-17) Kontraesanak kontraesan, azken buruan, lan egokia egin den lurralde, sektore, eremu edo guneetan, gutxi-asko, emaitzak jaso dira eta, aldiz, interbentziotik kanpo gelditu diren gainontzekoetan atzerakada edo, onenean, geldiunea gertatu dira. Hortaz, zergatik gune horien inguruko informazio kontrajarriak?

Bestalde, oinarri ditugun bi ikerlanen informazio aberatsak aukera ematen dute analisietan askoz gehiago sakontzeko, baina artikulu honen mugak ez dute horretan saiatzeko aterik zabaltzen. Argi geldi dadin, beraz, jarraipena izan beharko lukeen ahalegina dela hemen hasitakoak.

Gaurtik aurrera zer?: Emaitzak ikusita eta ahalegin berriak era eraginkorragoan bideratzeko asmotan, zalantza eta galdera batzuei erantzun egokiak bilatu behar zaizkie. Aurreko lerroetan esan bezala, argitu beharreko puntu batzuk datu bilketarako tekniken ingurukoak dira. Aurrez aurre eta modu irekian lehendabiziko aldia izanik, erkaketa metodologiko-teknikoak findu behar dira oraindik.

Metodologiak harago, hona hemen balizko galdera batzuk: Zein da euskara gehiago erabiltzeko dauden mugak eta ezintasunak? Interben-

Efikazia eta efizientzia ekimen berean uztartzeko asmoz, bi xedetalde proposatzen dira egokienak eta lehentasun osokoak direlakoan: a) gune soziolinguistiko euskaldunak; b) euskaraz egin ohi ez duten euskaldun euskaltzaleak.

Euskaraz egin ohi ez duten euskaldun euskaltzaleek osatzen dute multzoa askoz handiagoa da gune euskaldunenetak o biztanleriarena baino eta, hortaz, kuantitatiboki garrantzitsua da. Euskaraz egin ohi ez duten euskaldun euskaltzaleek badute, definizioz, gaitasun eta motibazio maila txukuna eta, hortaz, erraz bihur litezke euskaldun aktibo, baldintza eta bitarteko berri gutxirekin.

tzioaren balioa agerian jarri denez, zer-nolako neurriak bultzatu behar dira halakoak gainditu ahal izateko? Zein izan behar dute interbentzio eraginkor eta berriaren hartzaileek edo xede-taldeek? Jarraian egiten dira zenbait iradokizun.

Has gaitezen interbentziorako xede-talde egokienak zedarritzetik. Izan ere, euskara biziberritzeko dauden interbentzio-eremuak amaigabeak dira eta horretarako dauden baliabideak, aldiz, mugatuak. Hortaz, lehentasunak ezarri behar dira, ezinbestez. Gainera, interbentzio guztiek, egokiak balira ere, ez lukete errendimendu maila bera emango; hortaz, eremu emankorrenetatik hasi beharko litzateke, ez edozeinetatik.

Efikazia eta efizientzia ekimen berean uztartzeko asmoz, bi xedetalde proposatzen dira egokienak eta lehentasun osokoak direlakoan: a) gune soziolinguistiko euskaldunak; b) euskaraz egin ohi ez duten euskaldun euskaltzaleak.

Gune soziolinguistiko euskaldunen garrantzia ez datza beren pisu demografikoan, baizik eta beren nolakotasunean. Izan ere, euskara jatorrenaren habia dira, hizkuntza horren arnaguneak. Horregatik, erabilera atzera egin izan duen ala ez ongi konprobatzea da beharrezkoa. Hizkuntza politikak zonalde erdaldun edo ertainentzat onurak ekarri baditu, desegokia ote da gune euskaldunenetarako ala ahaztuta utzi ote ditu euskararentzako behar-beharrezkoak diren arnagune horiek? Hezkuntza sisteman edota herri-administrazioan ezarri diren hainbat neurri eragina izango dute gune horietan ere, baina, antza, ez neurri horiek ez dira nahikoak. Atzerapausoak eman badira, euskarak bestelako politikak edo programak beharko ditu joera arriskutsu hori ekiditeko. Agian, hizkuntzaren ikuspegi holistikoa aplikatuz, hizkuntza politikak hirigintza ere bere baitan hartzeraino? Horra hor, puntu bat hausnarketarako.

Euskaraz egin ohi ez duten euskaldun euskaltzaleek osatzen dute multzoa askoz handiagoa da gune euskaldunenetako biztanleriarena baino eta, hortaz, kuantitatiboki garrantzitsua da. Euskaraz egin ohi ez duten euskaldun euskaltzaleek badute, definizioz, gaitasun eta motibazio maila txukuna eta, hortaz, erraz (erlatiboki, hitz eginez) bihur litezke euskaldun aktibo, baldintza eta bitarteko berri gutxirekin (erlatiboki, berriz ere). Horrek euskararen komunitatea hedatzea lezarke eta, horrela, euskaldunak agerikoagoak lirateke eta gizartean pisu gehiago irabaziko lukete. Alegia, halako hiztunak aktibatuz gero, euskara normalizatuago legoke.

Bukatzeko esan, informazio eta heziketa soziolinguistikoak ere ezinbestekoak direla, hizkuntza biziberritzeak duen konplexutasunaz eta ahaleginaren tamainaz herritarrak eta, zehatzago, bi hiztunen komunitateko —euskalduneko zein erdalduneko— kideak ongi jabe daitezten.

Ezin da ahaztuta utzi, ordea, jendaurreko komunikazioak duen pisu handia iritziak eta jarrerak -aldekoak zein kontrakoak- eraikitzeke orduan eta, egun, hori izan daitekeela gizartea euskararen alde jartzeko modurik eraginkorrena (Elizburu, 2012). ●

BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, K. (1991). Euskararen erabilpenaren kale neurketen inguruko gogoetak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 3-4 (39-50).
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikerketak_soziolinguistikoak.html#ikerketak (azken kontsulta: 2011-09-02).
- Elizburu, G. (2012). Topatu.info. <http://topatu.info/1611/estrategia-politiko-ala-komunikatiboa-da-behar-dugun> (Kontsulta data: 2012-11-26).
- Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Pamplona-Iruñea. Nafarroako Gobernua.
- Fishman, J. A. (1979). *Sociología del lenguaje*. Madrid. Cátedra.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2012). *Euskal Autonomia Erki-degoa. V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Martínez de Luna, I. (2001). Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40 (47-66).
- Martínez de Luna, I., Suberbiola, P. eta Basurto, A. (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
- Martínez de Luna, I. (2010). Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharizantetara. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 76 (53-67). <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/5374> (azken kontsulta: 2012-01-11).
- Zalbide, M. (2012). Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. *Hiznet: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa* (1.3 ikasgaia). Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (kontsulta: 2012-12-26).

Ezin da ahaztuta utzi, ordea, jendaurreko komunikazioak duen pisu handia iritziak eta jarrerak -aldekoak zein kontrakoak- eraikitzeke orduan eta, egun, hori izan daitekeela gizartea euskararen alde jartzeko modurik eraginkorrena.

OHARRAK

1. Arestian esandako egile horiek Bat Soziolinguistika Aldizkariaren zenbaki honetan bertan jaso eta erabili dituzten informazioak, datuak eta ideiak lerro hauetan behin eta berriz baliatuko ditugunez, horien aipamen zehatzik ez da egingo testu honen zehar, astunegi gerta ez dadin. Beraz, beste iturritatik hartutako informazioak baino ez dira aipatuko.
2. *Inkesta Soziolinguistikoak eta Euskal Herriko Kale Neurketak* guneko soziolinguistikoak zedarritzean irizpide berdinak ez dituzten arren, emaitza kontrajarri horiek ezin dira ezberdintasun tekniko horren eskutik azaldu.
3. Mikel Zalbidek *jardungune* bezala euskaratu du Joshua Fishman-ek erabilitako *domain* terminoa (Zalbide, 2012: 10).